

KAIXO




BIRUS bat naiz, gripearen lehengusua eta katarroaren bizilaguna




CORONAVIRUS dut izena

Bidaiatzea gustoko dut...



... eta eskuetan erraz itsasten naiz.



... ba al duzu nire berririk?

bai

ez

Zer sentitzen duzu nire izena entzuterakoan?




LASAI NAGO



EZ DAKIT



ARDURATUTA NAGO




JAKINMINA DUT



URDURI NAGO




TRISTE NAGO



Ulertzen zaitut.

Ni berdin sentituko nintzateke.





Telebistan, irratian edota egunkarietan agertzen naizenean... helduak larritu egiten dira.



Lasai, nik neuk dena azalduko dizut, ongi ulertzeko



Bisitan etortzen naizenean…
honakoak sortzen ditut:

EZTULA






SUKARRA



Baina laster noa eta persona gehienak ongi sentitzen dira.








EGON LASAI!

HELDUEK ZAINDUKO ZAITUZTE ETA SEGURU EGONGO ZARA.

Hori bai, zuk ere lagundu dezakezu:



ESKUAK MAIZ GARBITU, ETA EZ LARRITU

Ura eta xaboiarekin garbitu bitartean, zure kanta gustokoena abestu dezakezu!



Horrela ez naiz bisitan inora joango

Eta bitartean, sendagile eta ikertzaileek denbora izango dute txertoa bilatzeko.

